

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**364/2019 Foru Agindua, urriaren 31koa, onesten duena Deialdia, izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako zerbitzuburuaren lanpostua (Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza; kodea 1030.001)**

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzako Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1030.001) hutsik dagoenez gero, hura izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko deialdia iragartzea erabaki da.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak, 46.1 artikuluan, ezartzen du funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak lanpostuen zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak ezartzen du Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako zerbitzuburuaren lanpostua betetzeko era izendapen librea dela eta euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen 217 zenbakiko aurretiazko fiskalizazioaren aldeko txostena aztertu da.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako zerbitzuburuaren lanpostua (Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza; kodea 1030.001).

Bigarrena. Deialdia arautu behar duten oinarriak onartzea. Horiek foru agindu honi erantsita ageri dira.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 31a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

**ERANSKINA**

**IZENDAPEN ASKE BIDEZKO SISTEMAREN BIDEZ, ARAUBIDEZKO GARAPENERAKO ETA BATZAR NAGUSIEKIKO HARREMANETARAKO ZEBITZUBURUAREN LANPOSTUA (DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEAREN ZUZENDARITZA; KODEA 1030.001) BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK.**

**LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen helburua da izendapen aske bidezko sistemaren bidez Araubidezko Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuburuaren lanpostua (kodea 1030.001; Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritza) betetzea.

**BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA**

Sailkapen Taldea / Azpitaldea: A / A1  
Destino-osagarriaren maila: 28  
Berariazko osagarria: 45.432,45 euro  
Lantoki herria: Gasteiz  
Dedikazioa: eskusiboa  
Ordu prestasuna: 60 ordu  
Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe

**HIRUGARRENA.- BETEKIZUNAK**

Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioa izatea, A titulazio taldekoa (A1 azpitaldea), Administrazio Orokorreko edo Administrazio Bereziko Eskalakoa edo horren baliokidekoa izatea, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, eta zuzenbideko lizentziatuaren titulazioa edukitzea.

**LAUGARRENA.- ESKABIDEAK.**

Interesa dutenek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendu behar dizkiote eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatzen dituen bideetako edozeinetatik aurkeztuko dituzte. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain ondokoak ere jakinaraziko dira:

- A) Ikasketa tituluak.
- B) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.
- C) Egindako ikasketak eta ikastaroak eta dakizkien hizkuntzak.



D) Izangaia egoki irizten dien bestelako merezimenduak.

Horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

#### **BOSGARRENA.- EBAZPENA**

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak aztertuta,

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendariak izendapen proposamena egingo dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.

Izangaiei arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Esleipena Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak egingo du, foru agindu bidez.

#### **SEIGARRENA.- AURKA-EGITEA**

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkatu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legean, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenean, ezarritako kasu eta moduetan.

#### **ZAZPIGARRENA.- LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK**

1. Foru arau eta dekretu instituzionalen proiektuak egitea, txosten juridikoak emanez, foru arauen gaineko memoriak eginez eta proposatuko den lege testua idatziz.
2. Laguntzea eta txosten juridikoa egitea hala eskatzen duen edozein sailen mota guztietako araugintza ekimenetan.
3. Txostena egitea Euskal Autonomia Erkidegoko xedapen orokorren aurreproiektuez, lurralde historikoen eskumen eremuekin zerikusia duten gaietan.
4. Txosten juridikoak egitea Aldundiaren administrazio eta araugintza jarduerarekin zerikusia duten era askotako gaiez.
5. Aldundiaren araugintza jardura eta arau bidezko garapenaren eremuan egin beharreko jardunak gainbegiratzea, foru araugintza aztertuz Kontseiluaren bilkuretako gai zerrendan jasotako gaien bidez.
6. Batzar Nagusiek Foru Gobernu Kontseiluaren jardura bultzatu eta kontrolatzeko araugintza ekimenak koordinatzea eta bideratzea.
7. Araugintza jardunen programaren azterketa, jarraipena eta koordinazioa egitea, parlamentu fasean.
8. Aldundiko gobernu eta administrazio organoei aholku eta informazio teknikoa ematea, Batzar Nagusiekin dituzten harremanen ondoriozko eginkizunetan.
9. Batzar Nagusietarako hauteskunde prozesuak antolatu, planifikatu eta koordinatzea.
10. Onetsitako arauen eta parlamentu ekimenen jarraipena egitea eta haien gaineko informazioa eguneratzea, lurralde historikoen eskumen eremuekin zerikusia duten gaietan.